

Eusko Jauriaritzako
eta Osakidetzako
Lankideen Elkartasun
Fondoa.

Fondo de Solidaridad
de los Trabajador@s
del Gobierno Vasco y
Osakidetza.



2009ko memoria

Eusko Jauriaritza eta Osakidetzako

Lankideen Elkartasun Fondoa

zer0,7

2010eko maiatza

SARRERA

Memoria honetan jaso ditugu Eusko Jaurlaritzako eta Osakidetzako Lankideen Elkartasun Fondoak elkarteak (aurrerantzean, zer0,7) 2009an aurrera eraman dituen jarduerak. Elkarteak bete ditu hamar urte eta orain ere, hasiera-hasieratik bezala erronka bat dugu: gure lana hobetu eta ekimen solidario honetara ahalik eta jende gehien erakarri.

BAZKIDEAK ETA EKARPENAK

Ohi denez, urtean zehar **zer0,7**ko bazkideek beren soldata gordinaren %0,7ko ekarpena egin dute, elkartasun fondoak elikatuz. Bazkideen kopurua, urtero pixka bat jaisten bada ere, egonkor antzean mantendu dela esan dezakegu. 2009ko abenduan 1.012 bazkide zituen elkarteak: 411 Eusko Jaurlaritzakoak eta 601 Osakidetzakoak.

URTEKO BATZAR NAGUSIA

Urteko batzar nagusia 2009ko ekainaren 25ean egin genuen, 15:00ean, Eusko Jaurlaritzak Gasteizen duen egoitza nagusian (Donostia-San Sebastian, 1). Hona hemen orduko gai-zerrenda:

1. 2008ko kontuak eta jardueren memoria onartu (ikus 1. eranskina).
2. Zuzendaritza Batzordea berritu.
3. Galderak eta eskaerak.

Batzarra egin aurretik eztabaidatu beharreko gaiak buruzko informazioa bidali zitzaizkien zer0,7 elkarteak bazkide guztiei. Era berean, botoa posta bidez eman ahal izateko prozedura abian jarri genuen, batzarrera etortzerik ez zutenek ere bozka zezaten.

Erabaki hauek hartu ziren batzar hartan.

- Azken batzarreko akta onartzea.
- 2008ko kontuen balantzea eta ekintzen memoria onartzea.
- Zuzendaritza Batzordea berritzeko proposamena onartzea.

FINANTZATU BEHARREKO PROIEKTUEN BOZKETA

Azaroaren 26ean batzar nagusia egin zen, 2009ko deialdiari erantzunez aurkeztutako proiektuetatik diruz lagunduko genituenak aukeratzeko. Batzarra 14:00etan egin zen, Eusko Jaurlaritzak Gasteizen duen egoitza nagusian. Hona hemen eztabaidatu ziren gaiak:

1. Azken batzarreko akta irakurri eta, hala balegokio, onartu.
2. 2008an onartutako proiektuen jarraipenari buruzko informazioa eman.
3. Galderak eta eskaerak.
4. 2009ko proiektuak bozkatu eta botoak zenbatu.

Batzar hartan ondorengo erabakiak hartu ziren:

- Azken batzarreko akta onartu.

Galderen eta eskaeren ondoren, aurkeztutako proiektuen bozketa egin zen. Jakina denez, Garapenerako lankidetzak proiektuak aurkezteko deialdia luzatzen zaie Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE) guztiei. Bi alde erabiltzen dira deialdia helarazteko: bata, Euskadiko GKEen Koordinadoraren bitartez; bestea, zuzenean, aipatutako koordinadorak bere garaian bidali zigun zerrendan azaltzen diren erakundeei posta elektronikoz mezua bidalita.

Bazkideek 2008-2010 aldirako onartu zuten deialdiak aurreko hiru urteetan indarrean egon den lankidetzak estrategia aldatzen zuen. Izan ere, 2008tik aurrera, hiru urtez, fondoaren %50

Guatemalako Sololara bideratzea erabaki zen, eta gainerako %50a Afrikara, NBEren giza garapen indizearen arabera 15 herrialde pobreenetara, alegia.

2009an 18 proiektu aurkeztu ziren deialdira. Bazkide bakoitzak aurkeztutako proiektuen laburpenak jaso zituen, bi proiektu aukera zitzan; Sololako bat eta Afrikako beste bat. Fondo banatzeko modua ohikoa izan da, baina kontuan hartuta fondoaren erdia sololarako zela eta beste erdia Afrikarako; hau da, finantzatu diren proiektuak, bai Sololako eta bai Afrikakoak, jasotako boto kopuruaren arabera aukeratu ziren zegokien diru-kopurua agortu arte. 1.010 bazkideetik 142k eman zuten botoa (%14); parte-hartzea, beraz, aurreko urtekoaren berdintsua izan zen.

Lortutako boto kopuruaren arabera (gehienetik gutxienera), Sololako bi proiektu bozkatuenek eta Afrikako beste bik jaso dute eskatutako dirulaguntza. Sololara bideratutakoetan hirugarren proiektu bozkatuenak ere eskatutako dirulaguntzaren zati bat jaso ahal izan du; hori bai, GKEak proiektua aldatu behar izan da haren bideragarritasuna bermatzeko.

Horrenbestez, ondorengo bost proiektuak finantzatu dira (jasotako boto kopuruaren arabera ordenatu dira):

PROIEKTUA	NON GARATU	GKE	DIRULAGUNTZA
Kaleko haurrak hartzeko eta bergizarteratzeko zentroa indartu eta bere iraunkortasuna sustatu.	Kongoko Errepublika Demokratikoa	ALBOAN	99.690,72
Uraren eta saneamenduaren kudeaketa, partaidetzazkoa eta bidezkoa, hobetu Cipeleseko komunitatean.	Guatemala	LAGUN ARTEAN-ENTRE AMIGOS	69.266
Kongoko Errepublikarekiko elkartasun-jarduera: gerra ostean kalean geratu ziren umeentzako umezurtegia egin eta HIESari aurre egiteko osasun zerbitzua jarri.	Kongoko Errepublika Demokratikoa	FUNDACION DIPER	70.310
Genero indarkeriaren aurkako emakumeen sarea sortu. III fasea.	Guatemala	SOLIDARIDAD INTERNACIONAL	71.809,39
San Andrésko emakumezkoen elkarte indigenen elikadura segurtasuna indartu	Guatemala	ASOCIACION IZAN	28.925
Guztira			340.001,11

SENTSIBILIZAZIOA ETA BESTELAKOAK

Proiektuen finantzaketa kudeatzeaz gain, **zer0,7** elkarteak hainbat jardura gauzatzen ditu hegoaldeko herrialdeetan ez ezik iparraldekoetan ere ematen diren injustiziekiko langileen sentiberatasuna sustatzeko.

Eusko Jaurlaritzako egoitza nagusian honako hitzaldia eman da 2009an zehar:

- “Guatemalako komunitate indigenen garapena: aurrerapenak eta erronkak”; azaroaren 5ean. Hizlaria: (Centro Experimental para el Desarrollo de la Pequeña y Mediana Empresa Rural Sociedad Civil).CEDEPEMEko koordinatzaile Jose Luis Sigüil jauna.

Euskal Autonomia Erkidegoan antolatu ziren jardueren eta hitzaldien inguruko informazioa ere zabaldu zen bazkideen artean.

KONTUEN MEMORIA2009ko ekitaldiaren bukaeran honako hau zen **zer0,7** elkartearen kontuen egoera:**EGOERA-BALANTZEA 2009/12/31**

AKTIBOA		PASIBOA	
Bankuko saldoa	184.650,01	Egin beharreko baino oraindik egin gabeko ordainketak	204.000,66
Kontuan jasotzeke dauden diru-sarrerak	43.652,91	2009ko proiektuak (2. zatia)	204.000,66
* Osakidetzako kuotak, 2009ko abenduan jaso gabeak	26.995,82	Aurreko urteetako gerakina	20.201,20
*Lakuako kuotak, 2009ko abendua	15.438,91	2009o superabita	4.101,06
* 2009 beste hilabeteetakoak	1.218,18		
Osakidetza eta Lakua			
AKTIBOA			
GUZTIRA.....	228.302,92	PASIBOA GUZTIRA.....	228.302,92